www.kalaputxi.eus martxan da

KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2018ko apirila 182. zenb.



Feli Urreisti

Fidelita Alberdi

bizitza oso bat itsasoari lotua

HEZIKETA EREDU BERRIEN BILA

MAIATZEAN, ERROMERIA

TREIÑERUAK MAJURAN: IZURDIEI SEGIKA (I)

ATZERAKO BEGIRADAZ


Puntzio lehorraren teknika,
errekuperazio azkarra
apain
Udaberriko
aldaketaren
haizea
heldu da
apain
Gorputz eta Aurpegiko
Tratamenduak
Depilazioak:
-Laserra
-Elektrikoa
-Argizaia
Domingo Ibaibarriaga, 3 behea - Mutriku - 943 60 42 29 - 608 684 416- apain@apain.net


guk
gure etorkizuna
eraikitzen dugu
BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA
ERDI MAILA
· Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
· Mantentze-lan elektromekanikoa
GOI MAILA
· Administrazioa eta finantzak
· Automatizazioa eta robotika industriala
· Mekatronika industriala
· Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
· Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
· Web Aplikazioen Garapena
· Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa (2. maila)
lea artibai
ikastetxea
HETEL
HUMANITY AT WORK
MONDRAGON
Markina-Xemein (Bizkaia) · 94 616 90 02 · info@leartik.eus · www.leartik.eus

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Botikak	
Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 34 10
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal Euskaltegia	943 60 37 80
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

Iritzixa

Alberto Gorritiberea

EGIAREN GIBELEAN

Badira jarrera batzuk zer pentsatua ematen didatenak; igaro berri dugun Aste Santuan jende asko izan omen da Lekeition edo eta Zumaian, besteak beste. Ondo iruditzen zait, Mutrikun ere bisitariak izan direlako; baina, sarritan albokoa aipatzen dugu etxekoa gutxiarazteko, eta horrekin ez nator bat. Ederra da beste herriek egiten duten horretan erreparatu, ikasi eta gozatzea. Oraindik gogoan dut Baldorbako erromanikoa nola erakutsi zigun bertako nekazaletxe bateko arduradunak; gogoan dut, baita, bertako produktuak oinarri hartuta duten biltegi baten bidez nola hedatzen duten Arroitz eta inguruak Nafarroa erdialdean, edo eta ze goxotasunekin irakasten dizuten Uxue herriak dituen altxo-rrak eta aukera desberdinak bertako 'Urrutia' pastak lantzen dituztenek. Zer esan nahi dudan honekin? Gauza xume eta txikietan erreparatzen hasten garen heinean hasiko garela gozatzen bizitzako zenbait pasartez. Gauza berbera gertatzen zaigu egunero lanetan. Zenbat aldiz jokatu dugu prejuizio bidez? Besteek esandakoa bakarrik aintzat hartu eta koma bat bera ere aldatu gabe, telebistako kontakatilua izango balitz bezala ari eta ari. Egia da ez dela batere erraza ezarritako jerarkizaziotik ihes egitea, baina norberak landu beharko du, ba, bere iritzi propioa! Eta bidez batez, jerarkizazio amaigabeak ezartzen duen kortsetik sokak askatzen hasi beharko gara, ba. Oraindik gogoan dut bekoki beltza zuela erantzuten zidan lankideari esan niona: "*Zuk ikusiko duzu, baina bi ez dira haserretzen batek nahi ez badu, eta nik nahi ez dudanez, zaila izango duzu, beraz zeuk ikusi!*". Hirugarrena, besteen ona behingoz onartzearena izango litzateke. Alegia, '*horri ezta urik ere*' jarrera gainditu beharrean gaudela, zeren bestela gureak egin du. Oraindik gogoan dut kostako errepidea berritzeko tenorean, Alkoleako lur muturra tunel baten bidez gainditu zitekeela aipatu nuenean entzun nuena, alegia, 'ea burutik eginda nengoen'. Ba, begira, erokeriak ere ordenagailuak eta bereziki aurrekontuak ederki soportatzen dute. Badakit hurrengo urteko ikusmira eta baita pazientzia iturria ere errepide horretan edukiko dugula, baina garaiz gauden honetan gai izango ote gara guztion interesak kontziliatzeko. Alegia, bertako erabiltzaileak, gidariak, herritarrak, auzotarrak, turismo eskaintzaz baliatuko direnak, Done Jakue bideak ekarriko dituenak, surflariak eta baita harrizko hondartzaz gozatu nahi dutenak ere. Ez dago erraza, baina ahalegindu beharko ginateke behintzat. Zeren bestela, badakizue Gabriel Arestik zer zioen, ezta?: '*berriz ikusi beharko dugu behi gizena auzoan*'.

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com**
Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, EMA, Mutrikuko Institutua, Txantxangorri.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus

902 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:15
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30
Donostia	7:55	11:30	14:30	19:30	---

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	14:30	18:00	20:30
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:20	11:20	13:20	15:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	11:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	11:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15
Mendaro	7:45	orduro	20:45	22:5	22:20
Eibar	8:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:50	orduro	21:45		
Eibar	7:00	orduro	22:00		
Mendaro	7:35	orduro	22:35		
Mutriku	7:55	orduro	22:55		

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18::40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40
jai egunak		
A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

UDAL AURREKONTUEN AURREAN

Onartu dira 2018ko aurrekontuak ere EAJren aldeko botoekin, B+I koalizioaren abstentzio erabakigarriarekin eta ehbilduren ezezko botoekin.

Aurrekontuak hausnarketarako momentu ezin hobeak izaten dira, hala nahi izanez gero, eta guri aurrekontu hauek baloratzetik haratago legealdiko 3 urteen balorazioa egitera eraman gaitu, hau egitean, eskuin arruntaren jokabide zantzuak ikusi ditugularik.

1. Alde batetik, herri proiekturik gabeko jarduna ikus daiteke, kanpotik proiektuei irtenbidea emanez, aldiz, udalak berak adostutako lerroak edo herritik bertatik sorturikoak ez bideratuz. Azken hiru urte hauetan, hainbat azterketa edo hausnarketarako proposamenak egin diren arren, ez dira bideratu. Bideratu edo adostu diren batzuk, gainera, ez dira gauzatu.

2. Bestalde, gestiogintza ahula azpimarratu nahi genuke. Batetik plenoetan garbi ikus daitekeenez, alkatetzak agertu beharreko kudeaketa informazioa oso pobrea izaten ari da. Bestetik, azken hiru urte hauetan metatutako "gerakinaren kopurua" 2 milioi inguru izateak zerbait adierazten du: Prebisio eza, kronograma eza, ausardia eza…

3. Herritarrekin kontatu gabeko langintza egiten ari da udala. Ez da informaziorik ematen, ez da herri-bilerarik egiten –herritarrek zuzenean eskatua ez bada–. Herritarrekin parte hartze prozesu erabakitzaileak bultzatu beharrean, udaletxe honetako geletan hartzen dira erabakiak…

Mutrikuko EHBilduk urte batzuen buruan zer nolako Mutriku nahi duen galdetzen dio bere buruari eta galdera hori oinarri hartuta behar ugari agertzen dira, arauen berrikusketari dagokionez, etxebizitzei dagokienez, tokiko garapenari dagokionez, hezkuntzari dagokionez, bazterketa sozialari dagokionez…

Beraz, badugu zertaz hausnartu eta zer hobetu gure herri honetan eta bide honetan gure borondate eta prestutasun osoa dugu lanerako edota proposamenak egiteko. Legealdiaren hasieran planteatu bezala, gestiogintza partekaturako ere prest gaude, nahiz eta badakigun EAJrentzat ez dela gustuko planteamendua eta B+I-k ere ez duela interes berezirik honetan, gaur egungo egoerari bide eman zion eta.

Ea SU ARTIFIZIALEK argitzen duten Mutrikuren etorkizun oparo baten bidea. HALA IZAN BEDI!

EHBildu Mutriku

BADATOR ERROMERIA EGUNA

Aupa dantzazale!

Aurtengoan ere erromeri eguna dator, eta ez da edonolakoa izango (Dantza, bertso, kantu-jira, bertsio gaba...). Animatu eta zatoz baserritar edo arrantzale jantzita.

Bazkaritarako tiketak Apartak ileapaindegian egongo dira salgai 15 eurotan. Azkar ibili, bat ere gabe ez geldizteko! Tiketak erosteko azken eguna maiatzaren 12a izango da.

Eta gogoratu entsaioak ere badatozela: Hasiberriak, ostegunetan 8etan Dantza Taldearen lokalean; errepasoa, maiatzaren 2tik aurrera, asteazkenetan 9:15ean frontoian.

Egutegian borobildu gorriz maiatzaren 26a!

Gure Ametsa Dantza Taldea

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira: **Kalaputxi ·Barrenkalea 12 behea · 20830 Mutriku** edo internet bidez, **kalaputxi2001@gmail.com**

www.kalaputxi.eus



Kepa Astigarraga Odriozola


Eskerrak une goibeletan ondoan izan zaituztegun guztioi.


HEZIKETA EREDU BERRIEN BILA

Hainbat eragileren arteko elkarlanerako zubiak eraikitzea da oraingoz beraien helburua: “Denok batera, eta modu berean komeni da elkarbizitza arazoak lantzea; ikuspegi bateratuarekin, modu proaktiboan eta prebentiboan (aurre hartuz)”.

Mutrikun, gainontzeko herrietan bezalaxe, hezkuntza ereduaren eta oro har heziketaren inguruan egonezin eta kezka nabari da. Egun, gizartean, arlo sozial zein pertsonalean funtsezko helburua bihurtu da bidezko bakea. Eta, azken urteetako buruhauste horiek herriko hainbat eragile mugitzera eta batzartzera bultzatu ditu. Hasera batean, guraso elkarteko kideak beraien artean hitz egiten bazuten ere, ondoren, udaletxeko gazteri batzordera bideratu nahi izan zituzten beraien beharrak. Horrela, 2016-2017ko ikasturtean, Mutrikuko hiru ikastetxeetako; Goizeko Izarra ikastetxeko, San Miguel eta institutuko guraso elkarteko ordezkariak, beraien ardurak eta kezkak partekatzeko asmoarekin elkartzen hasi ziren. Hain zuzen ere, bilera horietan guztienak ziren beharrizan batzuk identifikatu zituzten; gaztetxoen ikasketa maila kaxkarra, zein ikasteko motibazio eza, CIP-era bideratzen ziren ikasleen kopurua, ikasleen arteko bazterketa edo jazarpen kasuak… kezka horiekin guztiekin ikastetxeetara eta udaletxera zuzendu ziren.


Ados zeuden elkarbizitza arazoa guztien kezka zela, eta gai hori landu beharra zegoela. Hori dela-eta, deialdia herrira zabaldu zuten, hezkuntza arloko hainbat eragileren arteko elkarlanerako zubiak eraikiz; “Denok batera, eta modu berean komeni da elkarbizitza arazoak lantzea; ikuspegi bateratuarekin, modu proaktibo eta prebentiboan(aurre hartuz)”. Hori da beraien helburuetako bat. Horregatik, hiru guraso elkarteak ikastetxeetako zuzendariekin, herriko alkatearekin eta hainbat teknikarirekin lanean hasi ziren. Horrela, elkarbizitzarako teorietan eta esperientzietan sakontzen hasi zirenean Paco Cascón irakasle eta adituaren eredu teoriko-praktikoa ezagutu zuten.













Paco Cascón Soriano irakaslea da Bartzelonako unibertsitatean, eta gatazken ebazpenerako gaietan aholkularia. Bakean hezteko, gatazken ebazpenerako eta giza eskubideen inguruko tailerrak ematen ditu. Horrez gain, hainbat kolaborazio egin ditu mugimendu sozialekin eta unibertsitateekin.

Mutrikun elkarbizitza modu bateratuan lantzeko eredu baliagarria izan zitekeela iruditu zitzaien. Horrela, Paco Cascónen *Gatazkan eta Gatazkarako hezi* heziketa eredua herrian ezagutzeko bi hitzaldi antolatu zituzten. Ekitaldian parte hartzera gonbidatu zituzten zuzenean hezkuntza arloan ari diren hainbat agente, eta horrez gain, deialdia herrian zabaldu zuten nahi zuten guztiek parte hartzeko. Hezkuntzako eragile eta langileentzat institutuan egindako hitzaldian 100 partaide inguru bildu ziren, eta guraso eta herritarrentzako hitzaldian, Zabiel jauregian, 120 lagunek hartu zuten parte.

Balorazio baikorra jaso zen bertaratu zirenen eskutik, eta Cascónek proposatutako eredua oso erabilgarria dela ondorioztatu zuten. Hezkuntza komunitateak gatazkarako heziketa eredu hori lantzen jarraitzeko beharra eta gogoa erakutsi zuen.

Bestalde, herri mailan hezkuntza batzorde baten eta horretan aditua den teknikari baten falta ere sumatzen da. Udaletxean gazteria zein kirol batzordea dauden bezalaxe, hezkuntzako gaiez hitz egiteko eta bertara zuzentzeko mahai edo batzordea eskatzen da; eta hori lortzeko denen artean bidea egiten ari dira.

Gauzak horrela, Mutrikun hezkuntza arloari bultzada bat emateko lehenengo harritxoa jarri dutelako sentipena dute, eta aurrera begira hasitako bide horri eutsi eta proposamen berriak lantzen jarraitzea planteatzen dute; denak elkarrekin eta elkarlanean, noski.

Nelson Mandelak zioen bezala "Hezkuntza da mundua aldatzeko armarik indartsuena".

Saturran Guraso Elkartea, San Miguel ikastetxeko Guraso Elkartea, eta Idurre Guraso Elkartea











ESKALADARAKO LOKAL BERRIA

Orain artean herriko eskaladazaleek herriko mendietako ormetan egiten zituzten beren saioak aire librean, eta barruko lanak futbol zelai pareko lokalean. Aurrerantzean, mendiko paretek hantxe jarraituko dute, baina barruko lanetarako lokal berri batean egingo dituzte. Izan ere, lokala aldatu dute San Agustin kalean lehen *Katea* enpresak lantegia zuen lokalera. Alokatu duten lokalean rokodromo berria instalatu dute eta horrek aukera berriak emango dizkie eskalatzaileei, lehengo lokalean ez zituztenak. Adibidez, 4 metroko altueran eta 115 metro zabaleran 15 lagunek ere jardun ahal izango dute aldi berean. Horrekin batera, lokalean hainbat egokitzapen egin dute erabiltzaileen bertako egonaldia gozagarriagoa izan dadin.



ERDIKOKALEKO OBRAK AMAITZEAR

Luze joan dira Erdikokaleko obrak, baina amaitzear daude. Dagoeneko aldatu dira uraren hodiak, sartuta daude gasaren hodia eta telekomunikazioetarakoak ere bai. Aurrerantzean, hortaz, Alde Zaharreko erdiguneko bizilagunek eta merkatariek zerbitzu hobeak jasotzeko aukera izango dute. Gainera, kalean egindako lubakia estaltzean harlauzak ipini direnez, ibiltzeko eragozpenak dituzten herritarrek eta bisitariek erosoago ibiltzeko modua izango dute hemendik aurrera. Azken hilabeteetan hits, triste, egon den Erdikokale alaituko al da heldu berri den udaberrian.



ESTROPADAK MUTRIKUN

Apirilean egindako aurtengo traineruaren aurkezpenean herritarrek erakutsitako babesa eskertu nahi du Mutriku Arraun Taldea, laguntasun haundia delako denboraldi luzean jakitea atzean 500 pasa bazkideren bultzada dagoela. Itsaso gainean onena erakusteko gogotsu ditugu arraunlariak, baina proiektua aurrera ateratzeko behar den finantzaketa posible egiteko lana ere erruz egin behar. Estropaden antolaketak aurtengoan Mutrikun izango da, bai, arraunaz gozatzeko aukera bikaina, punta-puntako arrauna. Euskadiko trainerilla eta traineru onenak Mutrikuko uretan ibiliko dira, nor baino nor, maiatzetik uztailera arteko asteburu askotan. Hona, gurean izango diren estropada nagusiak:
TRAINERILLAK: Maiatzak 19-20, Gipuzkoako txapelketa;
maiatzak 26-27, Euskadiko Txapelketa;
TRAINERUAK: Ekainak 2, Mutrikuko XIX. Bandera;
uztailak 7, ARC-2 Ligako Yurrita Bandera;
uztailak 11, Gipuzkoako Txapelketa.



OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Herri euskaldunean bizi garela esaten dugu, eta izan ere, hala da gure herria, euskalduna. Baina Errenta aitorpena egiteko orduan ailegatu denean, euskaraz egiten al dugu aitorpen hori? Ba erraz-erraza da euskaraz egitea edo, norbaitek egiten badigu, euskaraz egitea nahi dugula adieraztea.

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA: Jasotako proposamena onartzerakoan, telefonoz zein internet bidez, euskaraz egin nahi dugula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkigu.

INTERNET BIDEZKOA: • Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu. • Aholkularitzaren bat aukeratzen badugu, berariaz adierazi beharko dugu aitorpena euskaraz egin nahi dugula. • Beste modu batean egiten badugu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu).

MEKANIZATUA: • Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula. • Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere. • Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.



APAINGO AMAK 50 URTE

Burumendi Mendi Taldeak adierazi digunez, maiatzean 50 urte beteko dira orduko mutrikuar mendizaleek Apingo amaren figura jarri zutenetik. Arnora doanak hantxe ikusiko du, bide bazterrean, burdinezko kutxa berde dotore batean Apaingo ama, Mutrikuko herrira begira, mendizaleen zaindari. Elkartearen bilera-akta zaharretan ageri denez, 1968ko maiatzean prestatu zuten guztia, luistarren lokalean, urte hartako "Finalisten eguna" aprobetxatzeko Amabirjinaren irudia kokatzeko eta bedeinkatzeko.

Efemeridea kontuan hartuta, Burumendik herritar guztiei zabalik dagoen irteera berezia antolatu du Apaingo Amari gorazarre egiteko eta duela mende erdi herriko mendizaleek izan zuten gogoa berritzeko. Bide batez, mendi taldeko espereologia taldekoekin batera, Apaingo inguruetan ibilaldia egingo da eta Sakontxikiko kobazulora sartzeko asmoa dago. Goizpasa egiteko irteera hau maiatzaren 6an izango da.

Eskerrik asko Burumendi Mendi Taldeko lagunei herriko historiako ekintza berezi hura gogoan hartzearren eta herritar guztioi eskaintzearren.



BASERRIKO PRODUKTUEN MERKATU TXIKIA

Dagoeneko urte batzuk dira Beheko plazan baserriko produktuen merkatu txikia antolatzen hasi zela. Neguko etenaren ostean, udaberriarekin batera berriz dator eguna, hileko bigarren larunbatean. Hortaz, apirilaren 14an hasi ondoren, hurrengo hitzorduak maiatzaren 12an eta ekainaren 9an izango dira. Udan sartutakoan, berriz, uztailean (14 eta 28) eta abuztuan (11 eta 25) bi astean behin egingo da. Uda ostean, irailaren 8an, urriaren 13an eta azaroaren 10ean izango dira merkatu txikiak. Aipatzekoa da merkatu txikiaren inguruan hainbat ekintza osagarri burutuko direla inguratzen den jendearen gozagarri.

Orain artekoan bezala, merkatu txikiko egunean zozketa egingo da eguneko erosleen artean eta irabazleak salgai jarrita egon diren produktuekin osatutako otarrakada eder bat eramango du etxera.

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



GURE ESKU DAGO, EKAINAREN 10era BEGIRA

Hiru hilabete barru giza kate batean batu nahi ditu ***Gure Esku Dago***k 100.000 lagun baino gehiago, eskuz esku, arrazoiez betetako zapiekin. Donostian hasi, Bilbotik pasa eta Gasteizko legebiltzarraren atarian amaituko da mobilizazioa.

Mutrikuko GEDren kideak izen-ematearekin hasita daude eta ostiraletan Beheko plazan mahaia ipiniko dute giza katean parte hartzeko interesa dutenek izena emateko.

Internetez saretzeko aukera ere zabalduko da www.gureeskudago.eus webgunean.

Gogoratu behar Gure Esku Dago ekimena oinarrizko hiru printzipioren bueltan antolatuta dagoela: 1) Herri bat gara. 2) Erabakitzeko eskubidea dugu. 3) Herritarron garaia da. Hiru printzio horien bueltan, alboan ditugun pertsonekiko begirunez eta era positiboan lan egitea dugu gustuko. Berandu baino lehen, erabakitzeko eskubidea herri honetan bizi garen guztion topalekua izango delakoan ari gara, herritarrok gure etorkizuna erabaki dezagun.


EUSKARALDIA

Erronka eginda dago: Euskal Herrian 11 egunetan euskaraz bizitzea. Horixe da Euskalgintzak eta euskal Herri-Erakundeek 2018ko azaro bukaerarako prestatzen hasi diren ariketa. Euskal Herriko txoko guztietan euskaraz egin nahi dutenei horretarako aukerak eskaintzea. Eta hori lortzeko, zer hobe jendearen jarrera identifikatzea baino. Ahobizi eta Belarriprest figurak ezagun egingo zaizkigu aurrerantzean. Batzuk, aukera ematen dioten guztiekin euskaraz hitz egiteko borondatedunak; besteak, euskaraz hitz egin nahi duten guztiei euskaraz entzuteko borondatedunak. Gurean ere, izango dira batekoak eta bestekoak. Maiatzean zehar hasiko da Euskaldia Mutrikun ere antolatzen.

EUSKARALDIA



Badira urte batzuk web orrialde berriaren proiektua buruan geneukala, eta azkenik iritsi da herritarren eskuetan uzteko ordua: **www.kalaputxi.eus**



www.kalaputxi.eus

Aurreko urteetan Blogspot plataformarekin aritu gara lanean interneten, baina zerbait berezia sortu nahi genuen, herritarrei zuzendua beraien bizitza errazteko eta bitartean herriko albisteen berri izateko. Hasiera batean, atal hauek osatuko dute web orrialde hau: Hasiera, Aldizkariak, Argazki Zaharrak, Herriko Zerbitzuak, Egutegi Kulturala eta Harremana.

HASIERA orrialdean, klik egin ostean ageriko diren edukien bista azkar bat emango da: hilabete horretako aldizkaria PDF formatuan, artikulu laburrak eta egutegi kultural txiki bat. Horrela, irakurleak web orrira sartzean herriko albiste laburrak izango ditu irakurgai; aldizkaria irakurri edo deskargatzeko aukera izango du zuzenean; eta, baita ere, hilabete horretako ekintzak kontsultatu egutegi kulturalean.

ALDIZKARIAK atalean, Kalaputxi martxan dagoenetik argitaratu diren aldizkari guztien hemeroteka izango da, urteen arabera sailkatuta. Urte bakoitzean aldizkariak PDF formatuan daude gordeta eta hilabete zein zenbakiz ordenatuta, irakurleak pantailan bertan irakurtzeko edo, nahi bada, jaisteko.

ARGAZKI ZAHARRAK atalean, bestalde, duela urte batzuk argitaratutako Mutriku eta mutrikuarrak argazkitan bildumako argazkiak eskaintzen dira digitalizaturik. Guztira, 242 argazki, mutrikuarrek Kalaputxiren bitartez mutrikuarrei eskainiak. Argazkiak, liburuan bezala, hainbat ataletan daude sailkaturik: familia, musika, jai giroa... ikusi eta jaisteko aukerarekin.

HERRIKO ZERBITZUAK Askotan bizi izan dugun arazoa da herriko zerbitzuren batera deitu nahi eta zenbakia falta izatea, horren konponbide gisa sortu dugu atal hau. Atal honetan herriko zerbitzu gehien edo guztien telefono zenbakiak biltzen ditugu atalka. Bilaketak gauzatzeko, atalen arabera sailkatu ditugu zerbitzuak: abokatuak, aholkularitza, altzariak... baina, bilaketa zehatzagoa egin nahi izanez gero eta jatetxe zehatz baten zenbakia nahi izanez gero, bilatzaile bat ere badago bertan izena idatzi eta zuzenean telefono zenbakia lortzeko.

EGUTEGI KULTURALA herriko talde eta eragile askok eskatutako gauza izan da. Egutegi honetan herrian egingo diren ekintza guztiak argitaratu nahi ditugu, edozeinek antolatuta daudela ere; kontzertuak, jaialdiak, hitzaldiak... talde eragileek agertzea nahi duten guztia. Helburuetako bat guztien arteko koordinazioa bilatzea ere bada, ekitaldiak ekitaldien gainean ipini gabe. Egutegi kulturalean agertzeko **agenda@kalaputxi.eus** emaila ezarriko da, ekitaldien ingurukoak bidaltzeko.

HARREMANA Azkenik, harremanetarako atala dago. Bertan ageri dira Kalaputxiko lan-taldearekin harremanetan jartzeko bideak: Posta helbidea, telefonoak eta emailak.





Feli Urreisti eta Fidelita Alberdi

BIZITZA OSO BAT ITSASOARI LOTUA



Feli eta Fidelita, Arte Eskolak Frontoira jaisteko tunelerako egindako muralean, arrain-saltzaileei gorazarre.

Moilako emakumeak. Moilan jaioak, moilan haziak eta moilatik irteteko asmorik ez dutenak. Itsasotik eta itsasorako bizitakoak.

Umetan andrekin batera hasi ziren lanean, karnatak ekarri, tretzak karnatatu eta hamaika lan egiten gizonak itsasora joateko. Gizonak itsasotik portura heldutakoan, berriz ere lanera: arraina saltzera, sareak konpontzera...

***Aires Vascos* eta *Lurdes*, *San Antonio* eta *Iturraspe* enbarkazioak gogoan hartuta, gazte-sasoiko pasarteak gogora ekarri dituzte herrian dagoeneko galdua den bizimodu baten lekuko. Lana erruz egindako emakumeak biak, eta lanari beldurrik gabe heldu ziotenak.**

Umetako oroitzapenak gordetzen dituzue?

Bederatzi urterekin hasi ginen gu lanean, ume izateko astirik ez genuen izan. Bederatzi urterekin *Dentici*neko eskabetxara joan eta harri baten gainean ipini eta antxoari burua kentzen ibiltzen ginen. Gauean ere, askotan lanera! Beste batzuk ikastera eta jostera joaten ziren, baina gu lanera... Eta hamabost urterekin zaku-fabrikan ere bai! Eta ezkondu artean, fabrikan: *Arrasate*nean, *Dentici*nean, *Agapito*nean... Eta zerbitzen ere ibili ginen Zarautzen eta Deban.

Baina jolaserako astia ere hartuko zenuten...

Umeak umeekin batutakoan ibiltzen ginen kalean jolasten: Kate-kate, kaniketan, ezkutaka, baleka, aldaba jo eta ezkutaka, zelemietan, soka-saltoan, entretan kalabaza argidunak ipintzen... eta Angelusak erakusten zigun etxerako ordua! Ondarroatik etortzen zen Ermere izeneko gizon gaiztoa agertzen zenean han joaten ginen neska denok aidean! Gu ere okerrak baginen!

Eskabetxan urte asko eman zenuten...

Oroitzapen ederrak ditugu eskabetxakoak. Lan asko egiten genuen, baina lagun arte ederrean ibiltzen ginen. Angela maestresak errosarioa errezatzen jartzen gintuen... Eta *Arrasate*nean, ostirala ailegatzen zenean, *En la calle de la amargura* kantatzen genuen, hiru bider, hiru salbe... Eskabetxan lana bai, baina kantatu ere asko kantatzen genuen: *Markesaren alaba interesatua*.... Badakizue, kantatuta, lana gustorago eta gehiago egiten zen... Oraingo gazteek ez dakite horrelakoak kantatzen.

Sare asko pasatuko ziren zuen eskuetatik...

Ezkondu eta gero hasi ginen biok sare-josten, senarraren barkuko sareak egiteko eta konpontzeko. Eta danetakoak egiten genituen, malla haundia, malla txikia, tresmallua, zapo-sarea... zein arrainetara joan behar zen, guk sarea horren arabera armatzen genuen, kortxoa eta beruna josita. Egin ere geuk egiten genuen askotan sarea, korapiloak egiteko gure aurrekoek erakutsitako teknika erabilita. Baina zerbait izan bazen berezia sokatik nailonera egin zen jauzia izan zen berezia. Sareak barkoan sartu eta arrantzara. Eta bueltatzen zirenean... arrainekin batera, puskatutako sarea ere ekartzen ziguten konpotzeko. Udan kanpotarrak moilara etortzen zirenean han egoten ziren guri begira, nola egiten genuen lana, ta gu gustura; txalo ere egiten ziguten zuloa konponduta ikusten zutenean!





Moilatik irten eta baserri aldera egiten zenuten?

Udazkenean Arnora, egurretara. Bixigutara joateko seiñeruak joten zuenean etxeko emakume guztiak tretzak karnatatzera joaten ginen eta barkuak itsasora joaten zirenean gu Arnora, Euxebi Errondak arrastaka eramanda. Zeinek baino zeinek karga haundiagoa! Artea, piñua... harrapatzen genuen dena baserritarrengandik ezkutuka.

Artoa jasotzen zen garaian mariñel jendea baserrietara joaten ginen malutatara. Artoari hostoa kendu eta zakutan batzen genuen etxera eraman eta lejiatan sartzeko. Gero maluta horiek orraztu egiten ziren eta illerua erabiliz amuarekin montatzen zen kazan arrantza egitera joateko.

Itsasoan federik ere ez da falta izan...

*Pedro Manuel*enean egindako barkuak botatzen zirenean abadea barkura joaten zen eta ontzia bedeinkatzen zuen. Gero, erramu-eguna ailegatzen zenean, erramu-sorta bat bedeinkatu eta barkoko paloari lotzen zitzaion. Eta oraindik ere egiten da hori. Jesus Nazarenori ere fede handia izan diogu beti, eta diogu. Eguraldi txarrak zirenean makina bat aldiz lagatzen genion lanari Komenduko mojek kanpaiak jotakoan, eta han joaten ginen errezatzera itsasoa baretzearren. Eta itsasoan gauzak ondo joateko eta itsaso txarretik libratzeko *tolentinoak* ere erabiltzen ziren.

San Pedro eguna ere egun garrantzitsua izaten zen maiñelentzat. Dantzaurria izaten zen ekitaldi polit bat geroko dantzari bide ematen ziona, eta han ibiltzen ginen Kofradia zaharraren aurrean neska eta mutil dantzan.

Itsasoak zoritxarrak ere ekarri ditu Mutrikura...

Izan dira bai zorigaitzak gure herrian. Gure akorduan haundiena *Kulixka* galdu zenekoa. Bixigutara irtenda denborala ekarri zuen eta gehiago etxera etorri ez! Betiko galdu ziren itsasoan. Eta *Ninfa*neko gizona galdu zenekoa ere bai, Kristozulo atzetik olatua etorri eta itsasoak eraman zuenekoa, bederatzi egunetara Getariako portuan topatu zutena.

Eta itsasoan galdu ez arren, Hotela erre zenekoa ere gogorra izan zen. Goizeko hamaikak ziren eta ke haundia bistatu zen. Hurreratu ginenean Arantxita hantxe ikusi genuen erretzen, gizarajoa! Aitarekin hiltzen geratu zen semea ere hantxe gelditu zen... Haren aurrean mutrikuarrak oso ondo portatu ziren etxe gabe eta ezer gabe geratutakoekin. Gizonak Vigon ziren arrantzan San Pedro txiki egun hartan, eta autobusa hartu eta etxe bakoitzeko gizon bat etorri ziren herrira.

Arraina saltzearena alaiagoa izango zen...

Goizeko lauretan gizonak itsasora eta eguerdirako arrain freskoa ekarri. Barkotik atera eta karro txikian bentara eramaten genuen. Bentan arrainak bereiztu eta bentarako ez zen arraina herrian saltzen genuen, otarra zabalean eramanda; enbarkazio askotako andrak ibiltzen ginen arrainsaltzen, arrain bariatua, amukoa, fresko-freskoa: pelenkak, luxamak, kabrak, bobak, brekak, tramana, durdua, salbe-



Fidelita, Feli eta Felitxu, Iturraspe eta San Antonio barkuetako barbainetarako sareak josten, 1981 urtean.

rak, momatxa... Herriko jendeak asko estimatzen zuen arrain fresko ekarri berri hura, ta leihoetan zain egoten ziren gu noiz etorriko. Mutrikun zenbat saltzen zen momatxa, Jesusss! *Txanbel*eneko aurrean eta *Pikua Txiki*neko aurrean izaten genuen saltzeko toki nagusiak. Garai hartan plastikorik ez eta periodikoa erabiltzen genuen paketeak egiteko. Gauzak oso modu ezberdinean egiten ziren...

Eta herritik kanpora ere joaten ginen. Umetan trena hartu eta Eibarrera, kabra saltzera. Eta beranduago Donostiara joaten ginen kiskillak saltzera. Trenetik jaitsi eta Donostian barrena saltaka joaten ginen zein lehenago heldu Alde Zaharrera, prezio onena lehenengoak lortzen zuen eta. Portuan saltzen ez zena, Donostiako hoteletan eta jatetxeetan saltzen genuen.

Amaitzeko, errezeta bana eskatu diegu:

Momatxa patatekin. Tartera baten olio ona bota eta baratxuria belztu gabe bertan gorritu; gero, patatak sartu biribilean moztuta; patatak ia eginda daudenean, txikituta daukazun arraina gainetik ipini eta adornatu; horren gainean, idar poto bat bota eta perrejila txiki-txiki eginda.

Tramana. Ura egosten ipini porro eder batekin, perrejilarekin eta puskatutako patata koskor batzuekin; arraina tajaditak eginda euki eta patata eginda egon aurretik lapikora sartu eta ordu laurden bat eduki, elkarri gustoa emateko. Gero, platerera atera eta errefritoa bota gainetik pikantea gehituta, nahi bada.

Kontu guztiak esan gabe utzi dituzte, hurrengo batean berriz ere elkartu eta jarraitzeko, eta bitartean utzi dizkiguten aspaldiko "postalak" gogoratuko ditugu: Santakarra, Pedro Manueleneko astillerua, Txanbeleneko denda-taberna, Portuko txurrua, San Juan Txikineko errekia, tretzak, urkulua, treotzaria, millotarrak... plazan mutilekin egindako dantzaldiak, Antzomendiko erromeriak... Xobiet, Txaparro, Katxerua, Kalapetero... Garai bateko Mutriku itsastarraren oroigarri.

islada
FISIOTERAPIA
FISIOTERAPIA, PILATES, ERREHABILITAZIOA, HIPOPRESIBOAK
ANTIGIMNASIA, DIATERMIA (MEDESTEC)
San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Galanixarik gabe...

Elkarrekin teknologiak erabiltzen ikasten:

Zibermanager proiektua

Ba al duzu sakelako telefonorik? Ezagutzen al dituzu pribatutasun baldintzak? Instagram, Snapchat edota Youtube erabiltzen al dituzu? Internet erabiltzen dakizula uste al duzu?... Egungo gaztetxoek teknologia berriak gero eta lehenago erabiltzen dituztela ohartuta, herriko eskolen artean *Zibermanager* proiektua eraman da aurrera martxoan zehar.



Aditu bihurtuz...

Proiektua Mutrikuko Institutuan jarri genuen martxan. DBH3ko ikasleek sei orduko formakuntza jaso zuten "Pantallas Amigas" taldeko formatzaileek lagunduta. Bertan, talde txikitan banatuta, Internet, sare sozialak, pribatutasunaren garrantzia eta baldintzak, erabilera desegokien ondorioak, teknologiek eskaintzen dituzten onurak, online jokoak edota sakelako telefonoen erabilera egokiaz informazioa jaso eta aditu bihurtzen joan ziren...

Informazio honekin, zer?

Jasotako ezagutzak zabaltzea zen hurrengo erronka. Goizeko Izarra Ikastola eta San Miguel Ikastetxearekin harremanetan jarri ondoren, bertako seigarren mailako gaztetxoekin lanean aritzea adostu genuen. Lan prozesua galdetegi batekin hasi zen. Bertan, gaztetxoen erabileraren inguruko galderak egin zitzaizkien, hauen egoera ezagutu eta esku hartze egokia egin ahal izateko. Jasotako erantzunetan oinarrituta, gaztetxo hauekin egingo zuten saioa antolatzen hasi ziren DBH3ko ikasleak.

Aldi berean, eta ikasleekin lan egitea nahikoa ez dela ohartuta, gurasoekin ere esku hartzea egiteaz arduratuko zen taldea martxan jarri zen: seigarren mailako gurasoei ere saio informatibo bat antolatzeko asmoa aurrera eraman genuen. Bertan, euren seme-alabekin egindako esku-hartzea azaltzeaz gain (galdetegietan jasotako erantzunak, ikasleekin egindako dinamikak eta ondorioak), guraso gisa teknologia berriak erabiltzeko orduan kontuan izan beharreko oinarrizko jarraibideak eskaini zitzaizkien.

Ikasleekin lanean

Dinamika guztiak prestatuta, martxoaren 22an Institutuko ikasleak seigarren mailako ikasleen geletara hurbildu ziren. Ikasleen ezagutzak "Egia ala gezurra?" dinamikarekin zalantzan jarri ondoren, Internet, pribatutasuna, sare sozialen ezagutza, segurtasuna eta arriskuez aritu ziren hizketan. Ondoren, gaztetxoen parte hartzea sustatzeko, egoera anitzak proposatu zizkieten, eurek zer egingo zuten eta nola erantzungo zuten hausnartu zezaten. Azkenik, saio guztiaren ondoren ikasitakoa laburbiltzen saiatu ziren guztien artean.

Gurasoekin hitzaldian

Ikasleekin goizean aritu ondoren, gurasoen txanda iritsi zen arratsaldean. "*Pantallas Amigas*" taldeko profesionalaren laguntzaz, egindako lan guztiaren berri eman eta oinarrizko jarraibideak emateko unea iritsi zen. Bertan, seme-alabekin egindako esku-hartzea azaltzeaz gain (galdetegietan jasotako erantzunak, ikasleekin egindako dinamikak eta ondorioak), guraso gisa teknologia berriak erabiltzeko orduan kontuan izan beharreko oinarrizko jarraibideak eskaini zitzaizkien.

Hurrengo, berriz!

Aurrera eramandako saio hauen bidez elkarren artean lanean aritzeak dauzkan onurez konturatu gara. Jakintza partekatu eta zabaltzeaz gain, elkarren berri izan eta disfrutatzeko hainbat aukera daudela ere konturatu gara. Ea antzeko ekintzak errepikatzen ditugun, merezi du eta!







ATZERAKO BEGIRADAZ

EL DIA EGUNKARIA, 1931 - 04- 08

Natalio belaustegi "Noizbbait"

Mutrikuko Kronikak



ASTE DEUNA.- Urteroko elizkizun ederrak egin ditugu. Egualdiak ere, Aita Nazarenuari mila esker, uste baño gehiago lagundu zigun eta ibildeun guztiak kalietan egin ditugu. Elizkizun onetan Aita Frantzizkotarrak egin diguz itzaldi ederrak. Eliza guztia bete ikusten genduan.

Jai onetan abeslari azkarrak ederki agertu dute duten erreztasuna. Ara emen zer abestu dizkiguten:

"Unux ex discipulis", lau abotsetara. "O Domine Jesu", bost abotsetara. "Ecce quomodo moritur", lau abotsetara (Victoria). "Miserere", lau abotsetara (Perosi). "Ave verun", lau abotsetara (L.Rille). "Ave verun" (Rinck). "Jerusalem", sei abotsetara (Goikoetxea).

ILEROKOA.- Jaioak: Maria Dolores Bizarra Agirregomezkorta; Jesus Maria Jazinta Goenaga Osa; Ramona Osa Larrea; Isabel Azkarraga Iñarra; Jose Antonio Amutxastegi Galzakorta; Maria Dominga Amutxastegi Barinaga; Juliana Amutxastegi Aristondo.

ILAK: Benito Arrizabalaga Azpiazu; Maria Villar Irabien Larrañaga; Jose Toribio Arriola Gurrutxaga; Ignazio Gorostola Urkiri; Jose Arruti Iriondo; Martin Salegi Aranberria; Franzisko Arrieta Ituarte.

EZKON DEIAK.- Juan dan igandean deitu ziran lenengo aldiz, Barrenetxea´tar Jose Maria ta San Sebastian´dar Franziska. Zorionak

ONDO "MEREZIA".- Juan dan igandean egin zuten gure uriko abeslariak beren aparia. Ondo irabazia zegon, baña onen ondoren abestutzen zituzten beren kantu goxoak. ¡Bai, Joxe Manuelék ez dio iñori lagatzen!

Eskerrak nerekin gogoratu zan jaunari.

Beste eginkizun bat erabili nuan eta ezin izan nuan etorri. Baña nire biarrian arki-tzen bazerate, ez lotsatu, etorri bildur gabe.

NASTUAN.- Emen agurtu degu egun batzuetako etorrita, Gaztelu-Urrutia´tar Andres apaiz jauna.

— Donosti´ra juan da, Yurrita´tar Dolores — Bilbo´ra Azpaizu´tar Bentura. Urren arte.

AUTESKUNDEAK.- Alderdi guztietakuak erakutsi dutelako asmo on-ona gure urian aurrera eramateko 29´garren zatia, zinegotzi auek aukeratu dira:

Basterretxea´tar Kalixto, Odriozola´tar Anjel, Unzeta´tar Franzisko, Sustaeta´tar Andres, Beristai´dar Erramun, Astigarraga´tar Klaudio, Andonegi´tar Fermin, Arrizabala´tar Alejandro, Egaña´tar Pedro Manuel, Uranga´tar Fernando ta Arrizabalaga´tar Martin.

Nere ustez guztiak dira gizon on-onak ta legetsuak. Ia bada, Mutriku´ko uria zuen menpean artzen dezuen. Au da nik nai dedana.

Ikusten danez zinegotzi jaunaren artean aurkitzen da gure lagun idazle eta luistar sutsu dan "Itsas-aurre". Zorionak guztioi, batez ere "Itsas-aurre"ri ta ia zerbait egiten dezuten badago emen astindu bearra ta. Utzi alde batera Udal etxean sartzerako "politika" guztia eta zuen indar guztiakin uria ondo eta arduratsu zaindu.

"AGIRO MENDI"RI.- Etorri adi nai dekanian ire lagun "Ixaka" artuta. "Kartzelako" giltzak geuk ditugu orain ta zinegotzirik "falta" bada "suplente" bada ere jarriko gera. Agur.

EUZKADI EGUNKARIA, 1935 - 04- 29

Rikardo Arrieta "Gurutzondo"

Errijetatik - Mutrikuko Kronikak





AUTESKUNDEAK.- Joan dan igandean iragarrita zegoan lez auteskundeak euki genduan Motriko´ko erritxo ontan.

Aurreko nire idazkian nion, Motrikoarrai esanaz, ez aztutzeko beren autarkia abertzaliai autarkitu bear ziotela. Gaurkuan diot, aztu ez zirala.

Ez da urte asko oraindik irakurle. Udal-Etxe ontan hamaika ziñegotzi bear, da... Tamalez, euzkotarrak orduan itxartu etziralako, errian ziran abertzale gutxi, bañon... jator ayek gau ta egun lan egiten, ziñegotzi abertzale bat aterateko ta ala ere ezin, nunbait guziak lo zegozten.

Gaur jaunari eskerrak, aldaketa aundia egin du Motriko´ko erriak, len ziñegotzi bat ezin, da... gaur, guziak, amaikak.

Abertzale gutxi ayek —naiz eta erri guztia beren aurka euki— Arana-Goiri´tar azia zintzo ta sendo zabaldu zuten.

Arana-Goiri´k Euzkadi´ri esan zion "Euzkadi jaiki ta ibili adi" ta... emengo abertzale zintzo ayek beren erriari zioten "Motriko jaiki ta ibili adi".

Ta zuk irakurle, ikusi dezu Motriko jaiki ta ibili dabilela, geruago ta azkarrago gainera. Itxartu da len, lo zagon erria ta gaurtik Motriko Euzko-erri jatorrenetariko bat da.

Ona emen bertarako autu diran ziñegotzi berriak:

Arrieta´tar Domeka, Andonegi´tar Nikasi, Alberdi´tar Nikomeda, Andonegi´tar Pirmin, Agirregomezkorta´tar Koldobika, Anzorregi´tar Joseba, Burgaña´tar Koldobika, Iriondo´tar Kepa, Landa´tar Mikel, Lizarzaburu´tar Koldobika eta Urrezti´tar Pantzeska.

Zorionak guzioi ta zuek ziñegotzi berriok aurrera gogotu ta gogor Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra aldez.

GAXORIK.- Aspalditxo ontan gaxorik agertau abertzale zintzo ta idazle yagoa da "Arnope". Nire naya dek azkar sendatu ta amanian len bai len ikustia.

EUSKAL ERROMERIA EGUNA

zabaldu eta berritu nahirik

Duela hamahiru urte Gure Ametsa dantza taldeak, Dantzari Eguneko dantza formatuetatik ihesi, gure plazetan ohikoak ziren dantzak eta giroa errekuperatu nahirik, hilabete batzuetako ikastaroa antolatu, eta, ondoren, egun berezia ospatzeko **Erromeria Eguna** prestatu zuen. Goiz eta arratsaldeko egitaraua, partehartzaileen bazkaria tarteko. Harrera ona izan zuenez, urtero ospatu izan da maiatzaren azken larunbatean. Aurtengoan partaidetza zabalagoarekin indarberritu nahi dute egun hori.

Noiz ekin zenioten Erromeria Eguna antolatzeari eta zein helbururekin?

Gure Ametsa dantza taldeak, aspaldi eta tarte luze batez, antolatu izan zuen antzerako egun bat, baina interesa galtzen joan zen eta eten luzea gertatu zen. Orain hamahiru urte, 2005ean birplanteatu genuen berriro Erromeria Eguna antolatzearena. Helburua plazetan egiten ziren dantzak errekuperatzea zen, berriro jendea dantzan ikustea. Dantza taldeek formatu bereziko dantzak egiten dituzte eta Euskal Jai Egunetan kaleratu, baina sasoi baten erromeria zela edo beste edonolako jairen bat zela, ohikoa izaten zen plazako dantza galdua zegoenez, hori errekuperatu nahi izan genuen. Jende arrunta plazetan zein kaleetan dantzan ikustea jarri genuen helburu. Horrela, fandango eta arin-arinak dantzatzen irakasteari ekin genion oinarrizko dantza bezala, eta hauei gehituz joan ginen Iparraldean egiten diren zenbait jauzi-dantza, baita agian apur bat korapilatsuago baina jendeak gogoko duen Lizarrako Larrain Dantza.

Nola joan dira urte horiek guztiak partehartzeari begira?

Esker onez hartu zuten herritarrek Erromeria Egunaren antolaketa, eta arrakasta izan du. Balantze baikorra egin izan dugu urte horietako joan etorrian; laurogeitik ehun arteko pertsonek parte hartu izan dute ikastaroetan. Esan behar, tamalez, %97 emakumezkoak direla; hor dugu heldu beharreko erronka. Zenbait faktorek eragiten dute horretan, baina luze eta zabal hitz egiteko gaia dugunez, beste baterako utziko dugu.

Berrikuntza edo aldakuntzarik ere izan duzue urte horietan, ezta?

Bai. Hasierako urteetan Iparraldeko pertsonen laguntza izan genuen. Eurek ohitura duten bezala, egunean bertan arratsaldez jardun zuten plazan hango zenbait dantza irakasten, era oso praktikoan. Beste urte baten, 2009an —Mutriku hiribildu izendatu zuteneko zortzigarren mendea ospatzeko— ohiko ezkontza baten antzezpenarekin osatu genuen erromeria. Arestian aipatu dugu hilabete batzuk lehenago hasten dugula ikastaroa —frontoian izaten da astean egun batez ordubeteko jardunaldian—, eta etortzen zaizkigun pertsona kopuruaren arabera, beste saiotxo batzuk ere egiten ditugu hasi berriak direnekin edo hobeto trebatu nahi dutenekin.

Egia da dantza berri gehiagoren eskakizunak ere maiz egiten dizkigutela: agurra, banakoa...; horiek ez dira nolabaiteko erromerietako dantza motak, baina pentsatzen hasiak gara zer gehiago eskaini. Izan ere, gero eta talde gehiago ikusten da, erromerietako dantzez gain, beste zenbait dantzaren soinuz parte hartzen edozein festatan eta edozein txokotan.

Zergatik eta zer lortu nahi duzue aurtengoan?

Urteak joan urteak etorri, partehartzaileak nekatzen hasi dira beti egitarau berdinean parte hartzen. Moti-

Uzuri optika audio
ELGOIBAR - DEBA
RPS 183/12
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

bazio falta sumatzen dugu. Bada jende bat ikastarora etorri, eta egunean bertan ez dena azaltzen plazara; kopuru aldetik ere murrizketa apurra nabarituz goaz. Hausnarketa egitean etenaldi bat egitea ere pentsatu izan dugu, baina arriskutsua iruditzen zitzaigun, eta formatua aldatzea erabaki dugu edo ahaleginak egitea behintzat. Orain arte, dantzara etortzen direnen artean mugatu izan dugu jaia, dantzaz gaineko bazkaria eta beste, eta hori zabaltzea pentsatu genuen Euskal Erromeriarekin lotura izan dezaketen ekintza zein taldeekin, beti ere dantza ardatz izanik egun horretan.

Horrela lehen urratsa udaleko Kultura Sailera joatea izan genuen, gure asmoak azaldu eta euren iritzia jasotzeko berrikuntzari buruz. Baiezkoa izan zenez, beste talde batzuekin hasiak gara harremanetan, eta, oraingoz, prest azaldu zaizkigu Bertso Eskola, MRK, kantu-jira… Hemendik aprobetxatu nahi dugu deia zabaltzeko parte hartu nahiko luketen guztiei, herri-bazkari baten denok elkartzeko —tiketak jarriko dira— eta ekintzetan parte hartzeko. Dei orokor bat ere egin nahi diegu haur, gazte zein adinekoei ohiko euskal jantziz kalera ateratzeko.

Forma ematea dugu denon arteko lana. Ea ilusioa sortzen dugun! Badakigu ez dela izango erraza, ez baikara oso zaleak mutrikuarrok arropa tradizionalak erabiltzen, baina denbora izango dugu testigu.

Ohi bezala maiatzaren bukaeran ospatzea aurreikusten al duzue?

Bai. Maiatzaren azken larunbatean, 26an, ospatuko da eguna. Baina, astean zehar, egunarekin zer ikusia duten ekintza batzuk aurrera eramateko asmotan gara: buruko-zapiak prestatzeko ikastaroren bat…, dantzen jatorriei buruzko hitzaldia…, eta horrelako gehiago, egunak pasa ahala zehazten joango garenak.

ANIMATU PARTE HARTZERA!!!

ENTSEGUAK:

Hasiberriak:
osteguneten 20:00etan
Dantza Taldearen lokalean.

Errepaso saioak:
maiatzaren 2tik aurrera,
asteazkenetan 21:15ean frontoian









MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

oreka zentroa
Masajea eta osteopatia
Hitt entrenamendua
K-Stretch luzaketak
Posturologia
Enterenamendu planak
Oihana: 605 735 911 Jon: 696 675 665
gorputzoreka@gmail.com
Jose Maria Alzibar 12, behea - Mutriku

Treiñeruak majuran: izurdiei segika (I)

"Izurdien erasoaldiakaz izututen danean, batu baturik eta azal azalean geldituten da antxobea, gañalde guztia itxas egazti zuriz beteten jako, izurdeak azpitik gora ta kaiuak goitik bera, dsist eta dsaust, sartuten dira arrain pilloaren erdian, janalak jaten da iruntsialak iruntsiten; da sare txalopok agertuten dira alderdi guztietatik al daben giñoan biziro, euren sareakaz arrain dana inguratuteko asmoan".

Pasarte eder hori Txomin Agirre ondarrutarraren "Kresala" (1902) eleberri ezagunetik hartu degu.

Sasoi baten, *bixigutia* inportantia zan Mutrikuko maiñelentzat, baiña, estuasunik ez eukitzeko, baziran beste bi kostera edo arrantzaldi ezinbestekuak: *antunetia* eta *majura-arrantzia* (edo *majubatia*).

Gerra ezkeroztik antxobia, batez ere, udaberrixan harrapatzen da; baiña lehengo arrantzaliak udan ere ibiltzen ziran antxobatan. Eta ezin geinke ahaztu bixigua harrapatzeko karnatia ere antxobia zala, udazkenian harrapatutako antxoba txikixa.

Sasoi baten baiña, antxobia harrapatzeko antxoba-gorrixak topau bihar! Lihorretik topatu zeikezen; 1794an, konparaziotarako, Antonio de Yturrino talaixeruak beste zeregin batzuen artian (galernen eta gerrako barkuen berri ematia...) lan horixe ere bazakan: *"observar los rojos de anchova para facilitar su pesca a la gente por medio de señales o avisos"*.

Baiña, talaixeruaren laguntzarik gabe ere konpontzen ziran, izan ere ur azpixan zabiltzen arraiñak "ikusteko" teknologixia asmatu aurretik, zela edo hala moldatu bihar, eta animalixen laguntzia izaten zeuen: itsasoko txorixak eta izurdiak.

Apiril alde hontan, kostatik hurre, antxobak, sardiñak eta bestelako arrain txikixak jatera etorritxako izurdiak bistatzen ziran. Izurde harek maiñelentzako "debaldeko langilliak" ziran, antxoba-gorrixak ur-azalera ateratzen zitxuen-eta.

Antxobak eta bestelako arrain txikixak harrapatzeko izurdien atzetik segika ibiltzen ziran arrantzaliak, *majuran*. *Majuria* hitzak '*sardia*' edo '*gorrixa*' esanahixa daka. Hiru hitz horrek erabiltzen ditxue Mutrikuko maiñelek itsasuan ikusten dan sardiña edo antxoba taldia izentatzeko. Ondarrutarrek *manyubi* eta lekeitxiarrek *mandxudxa* esaten dixue. Erderaz, *manjúa*. Itxura danez, hitz horrek frantses zaharretik datoz: *manjue* 'jatekua, janarixa'. Arrain gozo horrek oso-osorik jaten dirala gogoratuz-edo. Xelebria bada ere, Sanlúcar de Barrameda (Cádiz) herrixan 4 cm inguruko antxoba txiki-txikixei "majuma" edo "majúa" esaten zakue.

Majuran

Izurdiek, taldian, antxua sardak inguratu eta ur-azalera ateratzen zitxuen. Izurdiek uretan kolpiak eman eta han gelditzen ziran antxobak, nora juan ez zakixela. Errez jaten zitxuen, orduan, izurdiek. Baiña zerutik eta portutik ere aillegatzen zakuen konpetentzixa: itsasoko txorixak eta maiñelak.

Mutrikuko arrantzaliei galdetuta, ederki azaldu digue zela ibiltzen ziran *majuran*. Lehelengo lana izurdiak topatzia izaten zan. Maiñelek euren kasa topatu zeikezen edo bestela talaixeruak keiaren bidez emandako abixua hartuta. Izurdiak talde haundixetan ibiltzen ziran, berrehundik gora ere bai... Martxa normalian zijuazela, hara eta hona, euren errunbuari segitxu bihar. Halako baten, antxobak somatzen zitxuenian, *enaideka* hasten ziran, salto haundixak emanez martxa haundixa hartzen zeuen. Orduan arraunlarixak lehertzeraiño jarduten zeuen, eta motordunak ere abante, dana emanda, izurdiei segika... Eta, bat-batian, hara nun hasten ziran izurdiak, *dzá!* dzangaka hondora... *zangiua* esaten zakon. *Izurdiak zangaka, laster aterako deue majuria!* Han egoten ziran arrantzaliak izurdiek antxoba-sardia nun aterako ur-azalera. Antxoba-sardia inguratu eta izurde guztien artian *gorrixa* edo *majuria* ateratzen zeuen. Antxobia galduta zauanez errez jaten zeuen izurdiek.

Bueltan-bueltan, saria –treiña– botatzeko ordua zan. Ez edozela baiña, antxobak goizian eta arratsaldian ez dijuaz norabide edo direkzio baten. Segun arraiña nora dijuan hantxik hasi bihar da *etxaria* egitxen, bidia moztutzeko. Antxobia ez dijua sekula eguzki aldera, ez zako gustatzen eguzkixaren argitxasuna. Goizian eguzkixa lestetik joten doanian mendebaldera dijua eta arratsaldian eguzkixa mendebaldian dauanian lesterutz dijua. Hori jakinda, barkua eguzkixari atzia emanda jartzen zeuen eta baborretik egitxen zeuen etxaria. Eguerdixan, eguzkixa goi-goixan zauanian, patroiaren senari jarraitxu bihar!!

Konpaiñia

Barkuak aburo-aburo ibiltzen ziran gorrixa zauan tokira aillatzeko. Batetik, ahalik eta kopururik haundixena harrapatzeko eta, bestetik, gaiñontzeko barkuak baiño lehenago ibiltzeko. *Etxaria* egitxeko lehelen aillatu biharra zauan, eta ez hori bakarrik, posizio ona hartu bihar zan, antxobia nun barruna zabillen ikusitxa.

Barku bakarra egon ezkero, harentzat irabazi guztia. Bi, hiru, lau, bost, sei... bazozen, guztiekin partitxu bihar harrapatutakua. "*Konpaiñian*" sartzeko, eskuarekin edo txapelarekin keiñua egin bihar izaten zan. Eta etxaria egitxen zabiltzanek beste keiñu batekin erantzuten zixuen. Egun osorako egitxen zan konpaiñia.

Sariak bi esku dakaz. Lehelengo, txikota eta aurreko muturra botatzen dira uretara eta maniobria amaitzeko atzeko muturra edo eskua. *Eskuko tiria* aburo ekarri bihar zan ontzi barrura, momentu horretatik aurrera ez zauan-eta konpaiñia eskatzeko aukerarik.

Arraiñak emandako irabazixak partitxu bihar izaten ziran gero "konpaiñian" sartutakuekin. Normalian Deban edo Eiba-

rren, porturik ez zauan tokiren baten.

Treiñeruak eta treiñak

Atunetan ibiltzen ziran txalopa-haundixak ez ziran aproposak *majuran* jarduteko; antxoba-gorrixak zozen lekuraiño aburo-aburo juan biharra zauan, eta txalopa-haundi harek astunegixak ziran, motelegixak, aukeran, saria botatzeko maniobrak egitxeko... Hori dala-ta, arrantza hortarako *treiñeruak* ibiltzen ziran.

Euskaltzaindiak, euskera baturako, "*traineru(a)*" hitza erabiltzia gomendatzen badeu ere, Mutrikun behiñik behin, *treiñeru(a)* erabiltzen da.

Batek baiño gehixok pentsatuko deu estropadetan ibiltzeko asmatu zirala treiñeruak, baiña, gaiñerako euskal herri kiroletan bezela, jatorrixan lanerako elementu bat do, kasu hontan arrantzarako barkua.

Treiñ(a) izeneko saria erabiltzen zeuen treiñeruek. Hortik izena: *treiñ* + *-eru(a)*. "Treiña" latiñetik ei dator: trahere > traginare 'arrastaka eruan' > traiña/treiña.

Ikertzaille batzuen esanetan XVIII. gizaldixan asmatu zan treiñerua, Hondarrabixa inguruan. Mutrikun behintzat, XIX. gizaldixan eta XX. gizaldixaren hasieran, treiñeruak erabiltzen ziran antxobak eta sardiñak harrapatzeko.

Mutrikun, 1819. urtian topatu det "treinera" barkuaren lehen aitxamena, hain zuzen ere *"lancha treinera"*. Dokumentu berian *"lancha menor sardinera"* ere agertzen danez pentsatzekua da askoz lehenagotik egongo zirala treiñeruak Mutrikun. 1765. urtian, esaterako, Joseph de Ezenarro eta Magdalena de Unanue andra-gizon mutrikuarrek lekeitxiar batzuei 466 errialetan erosi zixuen *"una chalupa de sardinear, con su trein o red de manjuas, y demas aparejos"*.

1818. urtian, Mutrikun, alturako txalopak (*lanchas de altura edo lanchas maiores*), treiñeruak (*lanchas menores de la treña*) eta potiñak zozen. 1830. urtian, berriz, 6 treiñeru zozen,*"26 chalupas, 8 potines de altura, 6 treñeras y 8 potines de jito"*. Eta 1845. urtian, 5 traiñeru: *"cinco lanchas treñeras o majuberas"*; beste 52 barku ere bazozen orduan, 45 txalopa-haundi (*lanchas mayores de pesca*) eta 7 txalopa txiki (*lanchas menores de pesca*).

1893. urtian, 144 barku zozen Mutrikun: 56 txalopa-haundi, 15 traiñeru, 12 batel eta 61 potiñ.

Zelakuak ziran treiñeruak? 12-18 lagunekuak izaten ziran, arraun hutsian ibiltzen ziran jeneralian, baiña aukeria zauken belak jartzeko bi palotan, nagusixan eta trinketian. Dana dala, XIX. gizaldi amaiera arte ez daukagu Mutrikuko treiñeruen datu zehatzik. Hiru treiñeru aitxatuko ditxugu: Martin Belaustegiren "Belaustegi" (1894), Jose Aniceto Etxeberriaren "Mater Dolorosa"(1894) eta Manuel Arrizabalagaren "Nazareno" (1895). Hirurak Zumalabenian egin zitxuen. Luzeria: 11,20 eta 11,85 metro. Zabaleria: 1,83-2,10. Altueria: 0,70-0,87. Pisua: 3,97-5,79 tona.


1893. urtian, Intxirri txikiko moillak baiño ez zozenian, itsaso haundixekin portuko txalopa eta treiñeruek asko sufritzen zeuen. Hori dala-eta, neguan moilla gaiñera altzatzen zitxuen treiñeruak: *"padecen mucho las lanchas con los choques de unas con otras, y con el rozamiento sobre el fondo en el tercio último de la marea, de modo que los propietarios que no funcionan durante el invierno, como son los de traineras y otras menores, se ven obligados a subirlas sobre los muelles y calles contiguas"*.

Treiñeru kontuak amaitzeko, datu jakingarri bat: 1893ko urrixan Mutrikuko Kofraixakuek Udalera jo zeuen euren kejia agertzera, Alkolea etxeko jabiak haitzetarako bidia itxi zixuelako. Maiñelak haitzetara, zertarako? Maiñelek eskatzen zeuen *"que habilite el paso que antes existía y que en la actualidad ha cerrado con un muro para la bajada al puerto chiquito llamado Pochecosenua donde se refugian las treineras en tiempo de temporales"*. 1901eko mapa baten "*Pozokosenua*" agertzen da eta ahoz, *Potxokosenua*. "*Senua*" edo *senadia*, erderazko 'ensenada' da.

Ikazdun barkuekin, treiñeruen gainbeheria etorri zan. Baporiek, harrikatz eta urarekin, errezago eta azkarrago aillegatzen ziralako gorrixetara. 1925eko maiatzaren 10ian halaixe idatzi zoan ARGIA astekarixan Arno-Mendi korrespontsalak: *"Gure uritar arrantzaleak asi dirade zerbait arrapatzen nekez bada ere: egun onetan bokarta ederki ekarri dute batzuek malla esaten diogun gau arrantzan; "majura" deitzen diotenian berriz, oso utsian dabiltz lurrun ontziak aurtengo onetan."* 1927ko martxuaren 20xan, berriz, beste hau idatzi zoan: *"Gure arrantzaliak urteroko bokart aldia urrian dutela ta asi dira gertakizunetan: lurrun ontziak berriz tximista bezin azkar emen ikusten ditugu izurde ondoren dabiltzala"*.

Sonarrak eta sondiak erten zeuenian ez zauan izurdiei segitxu biharrik, barkuko aparatuek markatzen zeuen-eta nun zauan arraiña. Hola galdu zan betiko aspaldiko arrantza modu hori.

Josu Larrañaga Arrieta





EKAITZ, ENARA, GURENDA eta NAHIA

Zorionak laukote, apirilak 4, 16 eta 21ean urteak betetzen dituzuelako. Famili guztiaren izenean matxo haundi bana.



FELI

Zorionak urte berri bat bete duzulako... eta ez galdu sekula irribarre hori!



MARIBEL

Zorionak lagun!
Zorionak ama!
Zorionak amona!



IZENA

Laguna, ahizpa, arreba, amona, ama, lehengusiña, beste lagun bat...



IZASKUN eta LEIRE

Zorionak gure lagun pareari! Amari eta alabari matxo handi bana amaren eta alabaren partez! Pa ta pa!



MADDI

Zorionak eta belarritik teink zure egunean! Matxo haundi-haundi bat!



MARI KARMEN ETA JOXE MARI

Zuen urrezko ezteien aitzakian egun ederra pasa genuen guztiok. ZORIONAK Galparsoro-Egurbide sendien izenean.

ZORIONTZEKO MODUAK

E-POSTA kalaputxi2001@gmail.com
aldizkaria@kalaputxi.eus
WHATSAPP **635748393**
ESKURA **ANSORREGI ZAPATA-DENDA**
BUZOIAN **LUARDO BEHEAN**









Argazki Zaharrak



Izarra Txikiko tripulaziokoak
Julian Arruabarrena *"Txanberlain"*, Frantzisko Flores *"Patxikillo"*, Jesus Furundarena *"Tretzia"*, Krexen Elezgarai, Jose Juan Arreitunandia eta Elias Olariaga, millotarrekin antxoa deskargatzen.



Ingalaterran, 1938 urtean
Pantzeska eta Iñaki Arrizabalaga anaiak


ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

APIRILA		MAIATZA	
20tik 22ra	Lon Apraiz	1etik 3ra	Lon Apraiz
23tik 26ra	Hiart Burgoa	4tik 6ra	Lasuen-Elezgarai
27tik 29ra	Amaia Zalduegi	7tik 10era	Amaia Zalduegii
zapatu (28) goizean, Lasuen-Elezgarai		11tik 13ra	Hiart Burgoa
30ean	Lon Apraiz	zapatu (12) goizean, Lon Apraiz	
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		14tik 17ra	Lasuen Elezgarai
Pilar Etxeberria Botika		18tik 20ra	Lon Apraiz
Errosario kalea 26, Elgoibar		21etik 24ra	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		25etik 27ra	Amaia Zalduegi
Idoia Lafuente Botika		zapatu (26) goizean, Lasuen-Elezgarai	

AGENDA

apirilak 21, zapatua
Kamara musika kontzertua
Arriola eta Barandiaran
20:00etan komenduan

apirilak 26, eguena
Koldo Zuazoren hitzaldia
Euskalkiak
19:00etan Gaztetxean

apirilak 28, zapatua
Organo kontzertua
20:00etan Parrokian

maiatzak 6, zapatua
Apaingo amabirjina
eta inguruetara bisita

maiatzak 10, osteguna
Ipuinaren ordua
17:00etan liburutegian

maiatzak 12, zapatua
Baserriko merkatu txikia

maiatzak 13, domeka
Jaunartzeak

LIBURUAREN ASTEA

apirilaren 23tik 27ra

apirilak 24-25
Liburuen merkatu txikia
Liburutegi sarreran
10:00-13:00 eta 17:00-20:00

apirilak 26
Ziriako Andonegi ipuin lehiaketaren sari banaketa
Kirmen Uriberekin
Zabielen, 7etan

apirilak 27
Ipuin antzeztua umeentzat
Liburutegian, 5etan



apirilak 27, barixakua 22:00etan
apirilak 29, domeka 19:00etan

MENDI IRTEERAK

apirilak 22
Beriain (1493 m)
maiatzak 13
Tologorri (1073 m)
ekainak 17
Leitza - Ireber (1208 m)
uztailak 6, 7 eta 8
Pirinioak:
Taillon (3144 m) eta inguruak
irailak 9
Ortzaize - Haltzamendi (813 m) -
- Baigura (1474 m) - Heleta
urriak 14
La Leze - Olano (1082 m) -
- Arbarrain (1118 m) - Otzaurte
azaroak 18
Araia - Aratz (1445 m) - Arantzazu
abenduak 2
Ondarroa inguruetan zeharkaldia
eta bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

ekainak 1, 18:00etan
anbulatorioan
Gipuzkoako Odol Emaileak

2018ko ESTROPADAK

TRAINERILLAK
maiatzak 19-20 Gipuzkoako Txapelketa
maiatzak 26-27 Euskadiko Txapelketa

TRAINERUAK
ekainak 2 Mutrikuko XIX. Bandera
uztailak 7 ARC-2 Liga. Yurrita Group bandera
uztailak 11 Gipuzkoako Txapelketa

egitarauak eta deialdiak: **kalaputxi2001@gmail.com** edota **whatsappa 635748393**

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Ignacio Zuloaga Institutua

4B Arte Batxilergoa

Aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK

maiatzaren 3an

18:00etan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

EROSKI city

Gure bezeroengandik beti hurre









okindegia · fruitategia · harategia · urdaitegia · eta beste

asteazken eta ostegunetan erosketak etxera eramateko aukera

San Agustin 10 · Mutriku · Tel. 943 60 36 11





HaUrreSkoLaK









Mutrikuko Haurreskola

943 60 41 19

mutriku.mutriku@haurreskolak.eus

www.haurreskolak.eus

matrikulazio epea:

maiatzaren 2tik 12ra

